

PR-A 75

LOS PAYOSEN ITZULIA

Ezugarriak: 7,79 km / Desnibela 350 m / 2 h 35'

Deskripzioa: Pagoetatik abiatzen den ibilaldi laburra da eta Moraza mendian gora egiten du arte-erkametzen artetik aldapa gogorretik; bertatik, Arabako mendigune gehien eta hurbileko lurraldeen bista panoramiko izugarria ikus daiteke. Hortik, Los Payosen hegala harritsuva jaisten da zidor malkartsu batetik hasieran, eta ondoren ibilaldi atseginetik Inglares ibaiaren amildegirantz, ur-jauzi ederra osatzen duena. Puntu horretatik, ibilbidea Pagoetarantz doan kanal batekiko paralelo igoaroten da; Pagoeta San Kristobal kareharrizko harkaitzak eta Toloño mendilerro malkartsuak inguratzen dute.

PAGOETA. Ibilbidea XVI. mendeko San Juan elizaren eta iturri-aska-harraskaren ondokit hasten da. Errege kalea jarraituz errepidera iritsiko gara eta hemen ezkerretara biratuko dugu, beste aldean bista panoramiko atsegina duen mui-noan dagoen San Roke baseliza utziz.

Errepidea beharrez jarraituz ezkerretara zabaltzen den lehenengo lursailetik **1** 260m/alt 725m- jarraitu behar da, laborean arteatik astiro igoz. Aurrean Moraza mendia azaltzen da, erkamezi-artadi trinko batek estalitakoa, bere arteatik kareharrizko irtenueak agertuz; mendiaren hegala ibilbide honi ematen dio izena. Pistak eskuinetara biratzen du eta Urizaharrra ibar zabala eta Toloño mendilerroa ikustea ahalbidetzen du.

Basora heltzen ezkerretara hartu behar den (IM) **2** 1.350m/1,61km/alt 770m- eta erkamezian sartzen den bide belartsu batekin elkartzen da gure ibilbidea. Jarraian ezkerretara beste bide bat azalduko da **3** 100m/1,71km/alt 780m- SAIHESBIDEA egiteko aukera eskaintzen duena; amaieran azaltzen da eta Morazarako igoera saihesten du.

Ibilbide nagusiak eskuinetara jarraitzen du, eta Morazako mendebaldeko kordalean gora egiten duen suhesi batean desbideratzen da, kilometro batetik eta Trebiñuk Arabarekin duen mugatik pasatzen den malda gogorra igaroz.

Aldapa handia pixka bat berdintzen denean, ezkerretara mendiko postontzi atsegin bat **4** 1.090m/2,80 /alt 1.054m- agertuko da, kolore askotako oilarraren formakoa eta harrizko mugari baten bidez adierazitakoa. Puntu horretatik bista panoramiko itzela dago: Toloño, Demanda, Kodes mendilerroak, Beriain, Moncayo, Aizkorri, Anboto eta Gorbeia.

Aldapa amaitu ondoren eta gezidun poste bat igoz, gutxi zehaztutako Moraza mendiaren galur zabalerara **5** 210m./3,01km/alt 1.054m- iritsiko gara, mendiko postontzi bat, jaiotza bat eta erpin geodesiko bat dituzena. Ibilariaren aurrean azaltzen den bista panoramiko bikaina ikusteko merezi izan da aldapa gogorra.

Ibilbidea jarraitzeko 50 metro atzera egin **6** eta eskuinetara biratu behar da, gezieta batek markatzen duen "El Cerrrako" norabidea jarraituz, erkametzek eta artek duten liraintsan eta alturagatik nabarmentzen diren lertxunen zuhaitzi baterantz. Ondoren HM norabidean oso lausoa den zidor batetik jarraitu behar da, sastraka itxi baten artetik, artean eta ezpeldun erkametzen baso gazte batez estalitako kordal harritsu, malkartsu eta zehaztugabe baten ondokit lazki jaisten dena.

Jaitsiera larza duen lehenengo tartea igaro ondoren zidorra berdintzen den gune batera iristen da eta bidea gorpuztu egiten da. Bideak ezkerretara bihurgune bat du eta usategi baten ondokit pasatzen da. Gure atzean jaitzi berri dugun Morazaren hegoaldeko hegala aldapsatua azaltzen da, bertan baso trinkoak irtenune harritsuaren artetik nabarmenduz.

Azkenik baso-pista batekin **7** 1.070m/4,08km/alt 860m- elkartzen da ibilbidea, bertan 3. puntutik abiatzen den SAIHESBIDEA elkartzen da. Pista eskuinetara jarraitu behar da eta, bihurgune batera iristean **8** 120m/4,20km/alt 855m-, pista utzi egin behar da ezkerreara jotzeko. Bidea sigi-saga doa hasieran eta gero jaitsierak ibar erraz eta atsegin batetik jarraitzen du. Ondoren bidea harritsuago bihurtzen eta malda nabarmenago bilakatzen da, erkametzak handiagotzen diren aldi berean, Inglares ibaiaren amildegira heltzen ari garen neurrian. Toloño mendiaren hegala mardulak aurrean azaltzen dira udazkenean koloreen sintonia antzak eskainiz.

Bidean ezkerretara bihurgune handia dagoenean, lertxunen unada baten ondoan, utzi egin behar da eskuinetara beste bat hartzeko **9** 1.260m/5,46km/alt 710m-, Berganzoko zentral elektrikoak hornitzen duen gertuko kanalera doana. Inglares ibaia mehartutako haranetik jaisten da bortizki. Puntu horretatik eskuinetara 25 metroko desbideratze labor bat egiteak eta ezkerretara jaisten den zidor estu bat hartzeak meretz du, ibaiaren bidea jarraituz, haranaren sakonean kokatzeko ur-jauzi eder baten eta koba baten aurrean. Ibilbidea, hala ere, ezkerretara dagoen kanaletik joango da ibaiarekiko paralelo doan zidor estu bat jarraituz.

Ibilbide atsegingarria zubi txiki **10** 410 m/5,87km/alt 705m- batera iritsiko da eta, gurutzatu gabe, aurrera jarraituko du korrontearen ibilbidean gora eginaz hurriz eta pago zahartuen arku baten azpitik eta lursail pribatu batzuetatik igaroz.

Ibilbidea ibilguti urruntzen da eta azkenean amildegia utziko du, nahaspilatutako erkamezi-artearen arteatik azaltzen den San Kristobal haitz lirainaren bistak eskainiz. Bide zahar baten ibilbidetik egin behar da aurrera, landaredi-arku baten azpitik, ibilaldi atsegin batean.

Ondoren, harrobi zahar batetik datorren pista bat **11** 750m/6,62km/alt 725m- gure biderekin lotzen da. Metro gutxira pistak elkartzen diren bidegurutzet bat agertzen da **12** 210m/6,83km/alt 715m-. GR-1 eskuinetara pasatzen da Berganzorantz; gure ibilbideak, aldiz, aurrera jarraitzen du Pagetatik datorren GR-1 ibilbidearekin bat eginez.

Metro gutxira ezkerretik eta eskuinetik lotzen diren adarrak saihesten dira, labore-lursailen artetik gertuko Pagoeta herrirantz joateko, zuzenean plazaraino sartuz. **13** 960/7,79km/alt 735m.

SAIHESBIDEA 3 . puntuan saihesbidetik jarrai daiteke Moraza mendirako igoera saihesteko. Ezkerretara azaltzen den bide belartsutik jarraitu behar da eta erkameziaren itzalpeko ibilaldi atsegin bihurtzen da. Hasieran laborean iritsiko gara. **3A** 970m/2,68 km./alt 775m Ezkerretara berriz ere Pagoetarantz jaisten da, baina saihesbideak eskuinera jotzen du orain denbora gutxian baso-pistatik gora eginaz **7** puntuan -810m/3,49 km./alt 860m- ibilbide luzearekin lotzen den bizkar batera iritsi arte.

Lehenengo saihestu behar den pista batekin elkartuko da gure ibilbidea eta metro gutxira, alanbre-hesi baten eta pinazeoen sail baten ondoan, bihurgunara iritsiko gara. **3A** 970m/2,68 km./alt 775m Ezkerretara berriz ere Pagoetarantz jaisten da, baina saihesbideak eskuinera jotzen du orain denbora gutxian baso-pistatik gora eginaz **7** puntuan -810m/3,49 km./alt 860m- ibilbide luzearekin lotzen den bizkar batera iritsi arte.




Toloño mendilerroaren bista panoramikoa



Morazatik ikusten den hodei-itsasoa



Morazarako igoerako bista panoramikoa



Morazaren jaitsiera



Pagoetako harraska



Inglares ibaiaren ur-jauzia



San Kristobal haitzak




Payueta



San Roke basiliza
Debajo San Roque



Morazaren hegala



Inglares ibaia



Urizarra eta Toloño mendilerroa

Peñacerrada
Hurizarra

